

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Alkatetzaren 2026ko abuztuaren 12ko ebazpenaren laburpena (2026-184 zenbakiko Dekretua). Ebazpen horren bidez, Amurrioko udalerrian gaixotasun zeliakoa edo glutenarekiko intolerantzia, sentsibilitatea edo alergia duten pertsonentzako 2026ko laguntza ekonomikoen deialdia egin zen

BDNS(Identif.): 926247.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/926247>).

Lehenengoa. Onuradunak

Gaixotasun zeliakoa edo glutenarekiko intolerantzia, sentikortasuna edo alergia diagnostikatuta duten pertsonak, baldintza hauek betetzen badituzte:

Diruz lagunduko dira gaixotasun zeliakoa edo glutenarekiko intolerantzia, sentikortasuna edo alergia diagnostikatuta duten pertsonak, baldin eta egoera horren diagnostiko medikoa badago.

Laguntzaren onuradunak azken hamar urteetatik bost urtez egon beharko du erroldatuta Amurrión, eta horietako bat, gutxienez, jarraian eta oinarri hauek argitaratu baino lehen.

Onuraduna bost urtetik beherakoa bada, guraso ahala, tutoretza, zaintza edo familia harrera dutenek bete beharko dute errolda baldintza.

Udal Ogasunarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izatea, eta Udal Ogasunarekiko zorrik ez izatea. Betekizun horiek deialdiaren eskabidean jasotako aitopenen bidez egiaztatuko dira.

Familia unitatearen urteko diru sarrerak ezin daitezke izan 25.000,00 euro baino gehiago. Familia unitatea dela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan definitzen dena (33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa). Onuradunei emango zaizkien banan-banako gehieneko zenbatekoak ehuneko jakin batean gutxitu ahal izango dira, hain zuzen ere, laguntzak balioetsi eta eman ondoren erabilgarri dagoen aurrekontu esleipenarekin ordaindu ahal izateko beharrezko ehunekoan.

Bigarrena. Xedea

Amurrioko Udalak gaixotasun zeliakoa edo glutenarekiko intolerantzia, sentikortasuna edo alergia diagnostikatuta duten pertsonen ematen dizkien laguntzak arautzea, norgehiagoka prozeduraren bidez.

Hirugarrena. Oinarri arauak

Behin betiko onetsi ziren, dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera, Amurrioko Udalaren 2026ko maiatzaren 28ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, eta haren eduki osoa argitaratu zen urte 2025eko uztailaren 8ko ALHAOn (77. zk.).

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 10.000,00 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 30 egun natural igaro arte.

Amurrio, 2026ko abuztuaren 25a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA